

“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020 EGF PROGRAMA ERAGILEAREN 2020KO URTEKO TXOSTENAREN HERRITARRENTZAKO LABURPENA”

Europako Batzordearen 2015eko abuztuaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 EGF Programa Eragilea. Bada, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) arlo sozioekonomikoan eta lan arloan dituen premiak konpontzeari zuzendutako jarduerak jasotzen ditu Programak Eragile horrek. Guztira, 107,65 milioi euroko aurrekontua dauka eskura. Horien erdia (54,12 milioi euro) EBk emango du, eta EAeko erakundeek emango dute beste erdia. Euskal gizartean eragin handiagoa sor eta balio erantsia gaineratu dezaketen jardueretan kontzentratu da eskura zegoen finantzazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak parte hartzen du EAeko EGF Programa Eragilean, eta **hainbat lurralde-eremutako beste eragile** ekonomiko eta sozial batzuek edota gizarte-sektoreak parte hartzea sustatzeko asmoz diseinatu da. Programa eragilearen erakunde onuradunak hautatzeko lehiaketa-prozedura baten bidez eratu zen parte-hartze hori.

2020ko urtekoa COVID-19ak sortutako osasun-krisiak markatu du, eta horrek EAeko EGF Programa Eragilearen jarduerak egoera berrietara egokitzea ekarri du, formatu birtualetara joz eta/edo malgutasun-neurri bereziak hartuz, hauei egokitzeko: jarduera eteteko egoerak, ABEEak...

2020ko martxoan biztanleriaren konfinamendu orokorra dekretatu zen, eta urte osoan mugikortasuna eta jarduera jakin batzuk murrizteko neurriak ezarri dira (edukiera mugatzea, ordutegiak murriztea, etab.); beraz, zuzeneko harremaneko jarduera guztietan izan zuen eragina.

Ildo horretatik, ahalegin handia egin da prozedura eta material guztiak on-line formatura egokitzeko, aurrez aurreko jarduerak modu telematikoan jarraitzeko helburuarekin. Era berean, salbuespeneko neurriak ezarri dira jarduerak betearazteko epeak luzatzeko eta, hala badagokio, betearazpen hori justifikatzeko eta egiaztatzeko epeak luzatzeko.

Testuinguru horretan, 2020. urtean zehar, hautatutako erakundeek lanean jarraitu dute enpleguaren jasangarritasuna eta kalitatea, gizarteratzea eta berrikuntza sustatzeko eta pobrezia aurre egiteko. Halaber, zeharka zaindu da emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa, aukera-berdintasunaren printzipioa eta diskriminazio eza printzipioa errespetatzen eta sustatzen direla, 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 7. artikuluan (I. eranskinaren 5.3 atala) eta 1304/2013 (EB) Erregelamenduaren 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Ardatza	Gaia	Erakunde onuradunak
1	Enpleguaren iraunkortasuna eta kalitatea sustatzea, eta lan-mugikortasuna erraztea	Donostiako Sustapena Garapen – Garapen Agentzien Euskal Elkartea ASLE (Euskadiko Lan Sozietateen Elkartea) Vitoria-Gasteizko Udala Bilbao Ekintza
2	Gizarte-inklusioa sustatzea, eta pobrezari nahiz edozein diskriminazio-motari aurre egitea	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea EHLABE EMAÚS Bilbao SCIS Sendotu Aldiberean Suspergintza Elkartea
6	Gizarte-berrikuntza	Lea Artibai Lanbide Heziketako Eskualdeko Eskolako Kooperatiba Elkartea

2020an 41 operazio hautatu dira, eta horiei 6.900.000 euroko zenbatekoa dagokie. 2020 urte amaierarako, 267 eragiketa onartu dira, eta, data horretarako, 69.405.772,53 euroko dagokien proiektuak egiaztatu dira.

Erakunde horiek 2020an egindako jarduerak eta lortutako emaitzak urteko exekuzio-txostenean jaso dira.

1. ardatzaren barruan, langabeen edo azpienplegu-egoeran daudenen lanerako sarbidea hobetzeko lan egin da, besteak beste, prestakuntza-ekintzen bidez, laguntza, prestakuntza eta lan-esperientziarako sarbidea konbinatzen dituzten ibilbide integratuen bidez eta gazteak kontratatzen laguntzeko programen bidez. Era berean, ekintzailetzaren arloan, orientazio-, prestakuntza- eta laguntza-jarduerak egin dira ekintzaileentzat, enpleguaren jasangarritasuna eta kalitatea sustatzeko.

Programazio-aldia hasi zenetik, jarduera horiei esker 18.284 pertsonekin lan egin da (9.108 emakume eta 9.176 gizon); horietatik 14.808 langabeak ziren (7.094 emakume eta 7.714 gizon). Gainera, kontuan hartu behar da langabe horien % 28,63 laneratzea lortu dela (% 30,76 emakumeak eta % 26,67 gizonak).

2. ardatzaren kasuan (gizarteratzea sustatzeko, eta pobrezari eta edozein diskriminazio-motari aurre egiteko ardatza), gizarteratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak gizarteratzeko ibilbideak egin dira nagusiki. Aldi horretan,

bazterketa-egoeran edo arriskuan dauden 12.234 pertsonarekin lan egin da (5.698 emakume eta 6.536 gizon), eta horietatik 9.438 langabeak dira (4.423 emakume eta 5.015 gizon). Ekintza horietako langabeen % 18,71k enplegua lortu du (% 18,72 emakumeen kasuan eta % 18,70 gizonen kasuan).

Azkenik, 6. ardatzari dagokionez, gazte langabeen enplegarritasuna hobetzera bideratutako programa bat sustatu da, landa-eremuetan talentua mantentzeko eta/edo erakartzeko, bai eta gizarte-berrikuntza sustatzeko programa bat ere. Jarduera horiei esker, 88 pertsonari eman zaie arreta (42 emakume eta 46 gizon), horietatik 43ri 8.1 lehentasunean (13 emakume eta 30 gizon) eta 45ri 9.5 lehentasunean (29 emakume eta 16 gizon).

Laburbilduz, programazio-aldia hasi zenetik, egindako jardueri esker 30.606 pertsonekin lan egin da (14.848 emakume eta 15.758 gizon), horietatik 24.323 langabe (11.552 emakume eta 12.771 gizon), eta langabeen % 24,96 laneratzea lortu da (% 26,31 emakumeak eta % 23,73 gizonak). Halaber, 14.522 parte-hartzailek kualifikazioren bat lortu dute (7.200 emakume eta 7.322 gizon), hau da, parte-hartzaileen % 47,45ek kualifikazioren bat lortu dute (% 48,49 emakumeak eta % 46,47 gizonak).